

# IRUNGO IRAUNKORTASUNARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA

2014KO MARTXOA

## DIAGNÓSTICO DE SOSTENIBILIDAD DE IRUN

MARZO DE 2014

Laguntza teknikoa/ Asistencia técnica: IZADI 21



## **AURKIBIDEA**



1. LURRALDE IKUSPEGIAK .....	3
2. BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA .....	12
3. SENTSIBILIZAZIOA, PARTE HARTZEA ETA KOMUNIKAZIOA .....	26
4. GIZARTE ETA EKONOMIA GARAPENA .....	30

The background is a solid light green color with a subtle, repeating pattern of stylized flowers and leaves in a slightly darker shade of green. The flowers have multiple petals and a central circular detail, resembling a sunflower or a similar daisy-like flower. The leaves are simple, elongated shapes.







## 1. LURRALDE IKUSPEGIAK

## LURRALDE IKUSPEGIAK. EBALUAZIO OROKORRA ETA JARDUTEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK

	AZPI-EREMUAK	BALORAZIOA	DIAGNOSTIKOAREN OINARRIZKO ALDERDIAK	JARDUTEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK
LURRALDEA ETA ANTOLAMENDUA	Lurralde esparrua		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Irun, Donostialdea-Bidasoa Beheko Eremu Funtzionalaren ekialdean kokatzen da eta <b>1.000 biz./km2 baino gehiagoko biztanleria-dentsitatea du.</b></li> </ul>	<p><b>Udalaren eskumena:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>•HAPN behin betiko onestea eta garatzea, gaur egun behin behineko onespen fasean (Osoko Bilkuran onartua 2014/03/13an)</li> <li>•Ibai sareen eta hezeguneen egoera ekologikoaren hobekuntza bultzatzen jarraitu, baldintzatzen dituzten desanexioetan aurrera eginez.</li> <li>•HAPN planean aurreikusitako berdegune berrien garapena bultzatu eta jada dauden gunek hobetu eta eguneratu.</li> <li>•Lurraldearen erabilera jasangarria garatu eta bultzatu, finkatutako hiriaren berrikuntza eta birgaikuntza sustatuz, eremu urbanoetan bizi kalitate hobean eragin dezan.</li> <li>•Zonalde industrial abandonatuak edo degradatuak osatu eta birdefinitzea, etorkizuneko jarduera ekonomikoetara gehiago lotutako erabilera emanaz.</li> <li>•Lehentasuna ematea Olaberriako haranaren eta Ibarrola erreka haranaren Plan Bereziari.</li> <li>•Esparru guztietan efizientzia energetikorako neurriak bultzatu eta sustatzea (eraikuntza, azpiegiturak eta ekipamenduak).</li> <li>•Hondarribiarekin muga egiten duten zonaldeetan hiri-antolaketa</li> </ul>
	Udalerriko lurzorua erabilerak		<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Udalerriak 42 km2-ko zabalera du eta bere lurralde esparrua</b> % 80an landa-lurra da eta % 20an jarduera urbanokoa. Muga ondoan kokatzen den hiria izateagatik, bide-azpiegitura garrantzitsuen eraginpean dago.</li> <li>• <b>Hirigunea oso kontzentratuta dago,</b> Frantziarekiko mugaren hurbiltasunak <b>eta hiria bitan banatzen duten trenbide-azpiegitura handiek mugatuta.</b> Bizitegi eraikinaren oinarrizko tipologia familia-askotakoa da, bizitegi-lurzoruko etxebizitzaren dentsitatea 67,56 etxebizitza/hektareako delarik, Gipuzkoako batz bestea baino handiagoa.</li> </ul>	
	Hiriaren egitura eta antolaketa		<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Berdegune urbanoek okupatzen duten azalera lurzoru urbanoaren % 2,25koa da,</b> Gipuzkoakoa baino askoz txikiagoa, % 20,11koa baita. Azpimarratu beharra dago <b>babes bereziko azalera % 23,28koa dela,</b> Gipuzkoako eta EAEko batz bestea baino handiagoa (% 22,47 eta % 20,38, hurrenez hurren). Berdeguneen hazkuntza handia aurreikusten da, ondorengo jarduerak amaitu edo burutzeari esker: Gain-gainean parkea, Osinbiribil parkea, Bidasoa-Jaitzubia ibaiko korridorea, Usategieta hiri arteko landa parkea, Ibarla-Meaka hiri inguruko landa parkea.</li> </ul>	
	Hiriko eta hiri inguruko berdeguneak		<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Irunek balio handiko paisaia eta lurralde ingurua du eta, aldi berean, bere gunerik urbanoenean komunikazio-azpiegitura handien oso eragin handia dauka.</b></li> </ul>	
	Hiri paisaia eta espazio degradatuak		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eusko Jaurlaritzaren Geoeuskadi txostenean jasotzen den potentzialki kutsatutako lurren inbentarioaren arabera (2013ko maiatza), <b>Irunen 227 kokapen daude lurzorua potentzialki kutsatzen duten jarduerak eduki dituztenak, 95,93 ha-ko azalerarekin (datu hau lurraldearen azalera osoaren % 2,28 da).</b> HAPN planaren berrikusketak bi zonalde industrial birkalifikatzea aurreikusten du bizitegi erabilerarako: San Migel-Anaka eta Recondo-Ipparalde.</li> </ul>	
	Ondare arkitektonikoa eta kulturala		<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Ondare Arkitektonikoaren Katalogoan</b> azpimarratzekoak dira Junkaleko Andra Mariaren Eliza eta bere Erretaula Nagusia, Santiago Bidearen Monumentu Multzoa Santa Elena Ermitarekin, eta Urdanibia Jauregia, Ola eta Errota. <b>Ondare Arkeologikoaren Katalogoak</b> (HAPNaren berrikusketan jasoa) Oiasso Zonalde Arkeologikoa, Irungo Erdi Aroko Nukleoa eta Zubeltzuko Meatze zonaldea aipatzen ditu.</li> </ul>	
	Lurralde eta sektoreko planeamendua		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udalerri gainera plan desberdinen artean, indarrean daudenak eta Iruni buruzkoak direnak, ondorengoak dira: Lurralde Antolaketarako Gidalerroak, Euskadiko Trenbide Sarearen Lurralde Plan Sektoriala, Erreka eta Ibai bazterrek antolatutako Lurraldearen</li> </ul>	

	Hiri planeamendua		<p>Arloko Plana, Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana, Itsas ertza Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana, Lurzorua Publikoki Sortzeko Lurraldearen Arloko Plana Jarduera Ekonomikoetarako eta Ekipamendu Komertzialetarako.</p>	<p>bultzatuko duten akordio eta hitzarmenetan aurrera egitea.</p> <p><b>Udalaz gaineko eskumena:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>•Irunen garapena baldintzatzen duten trenbide eta errepide azpiegitura desberdinen garapenari ekin.</li> <li>•Aireportuari lotutako afekzio urbanistikoei dagokienez, aipatu azpiegitura horri lotutako organo erabakitzaileetan Udalaren parte hartze aktiboa sustatzea.</li> </ul>
	Iraunkortasun irizpideak sartzea planeamenduan eta eraikuntzan		<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>HAPN planaren berrikusketak 7.100 etxebizitza eraikitzeko aukera jasotzen du eta horietatik % 50ek babes ofizialaren maila desberdinak izango dituzte. Lurzoruaren 110 Ha. jarduera ekonomiko eta produktiboetarako gordetzen dira eta 90 Ha. espazio libreetarako.</b></li> <li>• Ingurumen Iraunkortasunari buruzko Txostenak, HAPN barne duela, inpaktuak identifikatzen eta baloratzen ditu eta planteatutako proposamenak jasotzen ditu, iraunkortasunaren irizpideak sartuta dituela, eta gainbegiratzeko bere programa ere definitzen du.</li> <li>• Irungo Udalak 2010ean sinatu zuen Iraunkortasun Energetikoari lotutako Alkateen Hitzarmenera atxikitzeko dokumentua dauka eta Energia Jasangarriaren Plan bat (2012).</li> <li>• Irunek, 2010ean, udalerrian eraikitako 1000 etxebizitzako 18,02 etxebizitza zeuzkan eraginkortasun energetikoaren ziurtagiarekin (CADEM)</li> </ul>	

## LURRALDE IKUSPEGIAK. EBALUAZIO OROKORRA ETA JARDUTEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK










BIODIBERTSITATEA ETA PAISAIA	AZPI-EREMUAK	BALORAZIOA	DIAGNOSTIKOAREN OINARRIZKO ALDERDIAK	JARDUTEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK
BIODIBERTSITATEA ETA PAISAIA	Balio natural eta paisajistikoak		<ul style="list-style-type: none"> <li>Irungo landaredi potentziala gehienbat hostozabalen basoek osatzen dute: haltzadiak, hariztiak, baso mistoak, ameztiak eta pagadiak. Beheko zonaldeetan padura eta hezeguneetako landaredia egongo litzateke. Aiako Harriko alderdi jakin batzuetan harkaitzetako landare silizeoekin zerikusia duen landaredia daukaten eremuak nagusi lirateke.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Lotura ekologikoko edo korridore ekologikoen zonaldeak identifikatu eta kontserbatu.</li> <li>Jaizkibel-Aiako Harria korridore ekologikoari eta Irungo balio natural eta paisajistikoari eragiten dieten edo eragingo lieketen garapen urbanistikoak eta azpiegiturak mugatzea edo murriztea.</li> </ul>
	Sistema naturalen eta paisaiaren kontserbazio egoera		<ul style="list-style-type: none"> <li>Hala ere, <b>Irungo udalerrian gaur egun nagusi diren landaredi unitateak</b> ondorengoak dira: baso azidofiloa <i>Quercus robur</i> espezieak dominatuta, belardiak eta larreak, <i>Pinus radiata</i> sailak, <i>Ulex sp.</i> espezieak dominatutako txilardiak, <i>Quercus rubra</i> sailak, koniferoen sailak, <i>Pinus radiata</i> izan ezik, hostozabalen sailak, <i>Quercus rubra</i> izan ezik, hostozabalen baso natural gazteak, baratzea eta haztegiak, <i>Deschampsia flexuosa</i> belardi silizikoak, iraleku atlantiarrak eta subatlantiarrak, muinotarrak, pagadi azidofilo atlantiarra, fruta sailak, hostozabal eta koniferoen sail mistoak, <i>Phragmites</i> lezkadiak, espezie autoktonoen palaxua, erriberako haltzadi eurosiberiarra, muinotar eurosiberiarra, bestelako landaketak (<i>Eucalyptos sp. Robinia pseudoacacia</i>), haltzadi ez riparia, <i>Baccharis halimifolia</i> formazioak, ur-lamina ertzeko eta zoru lokatzezko sahastiak, harkaitz silizeoetako landaredia, zingira azidofilo-esfagnalak, urkidia, elordi atlantiar kaltzikolak eta <i>Typha spp</i> lezkadiak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Egoera onean mantentzea uretako eta ibai bazterretako ekosistemak.</li> </ul>
	Jardueren eragina eta arriskua ingurune naturalean eta landa eremuan.		<ul style="list-style-type: none"> <li><b>Irungo udalerrian badira Galzorian dauden Fauna eta Florako Espezieen Katalogoan jasotako espezieak</b>, Euskadiko Natura Kontserbatzeko 16/1994 Legearen bitartez sortua. <b>Irun, goi mailako faunaren dibertsitate handiena duen Gipuzkoako eta EAeko udalerrietako bat da eta espektro oso zabaleko espezieak sartzen dira.</b></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Udalaren eta espazio natural babestuen erakunde kudeatzaileen eta nekazaritza inguruneke agente ekonomikoen arteko koordinazioa eta kolaborazioa hobetu: <ul style="list-style-type: none"> <li>Gipuzkoako Foru Aldundiarekin kolaboratu parke naturalean inaktuak sortzen dituzten jarduerak poliki-poliki konpontzen joateko (erosio arazoak bideetan, ibilgailu pribatuen joan-etorri inkontrolatuak, etab.).</li> <li>Aiako Harriko Parke Naturala Erabili eta Kudeatzeko Plan zuzendari berria onestearen alde lanean jarraitzea.</li> <li>Parke Naturala ongi kontserbatzeari lotutako plan teknikoak onetsi daitezen bultzatzea (erabilera publikoko plana, ehizako plan teknikoa, larreetako plan teknikoa, ...)</li> <li>Udaletik bultzatu zonalde eta elementu interesgarrien babesa (Aiako Harria KBE eta Parke Naturalean identifikatutako habitat interesgarriak daukaten eremuak babestea bultzatu, jabe partikular eta publikoen arteko komunikazioa eta udalerriko baso-ekosistemak kudeatzen inplikaturako agente desberdinen arteko bultzatu, horrela, orain</li> </ul> </li> </ul>
	Espazio natural babestuak		<ul style="list-style-type: none"> <li><b>Irungo udalerrian badira Galzorian dauden Fauna eta Florako Espezieen Katalogoan jasotako espezieak</b>, Euskadiko Natura Kontserbatzeko 16/1994 Legearen bitartez sortua. <b>Irun, goi mailako faunaren dibertsitate handiena duen Gipuzkoako eta EAeko udalerrietako bat da eta espektro oso zabaleko espezieak sartzen dira.</b></li> </ul>	
	Ingurune naturalaren antolaketa eta kudeaketa		<ul style="list-style-type: none"> <li>Irungo udalerraren <b>bereizgarri bat da ondorengo konfigurazio paisajistikoa edukitzea: padurak eta sare urbanoa, landazabala eta mendia.</b></li> </ul>	
	Heziketa eta sentsibilizazioa		<ul style="list-style-type: none"> <li>Irungo <b>udalerrria Aiako Harria KBE - Jaizkibel KBE (R21) korridorean kokatzen da</b>, aipatu espazio babestuen arteko lotura egiten duena.</li> <li>Irunen hamahiru habitat daude, <i>Habitat 92/43/EEE Zuzentarauan</i> sartuak, eta horietatik <b>hiru lehentasunezko habitat</b> dira.</li> <li><b>Irungo lurzoruen erabilera, batez ere, nekazaritza eta basozaintza, azpiegiturak eta erabilera urbanoa dira.</b></li> </ul>	



		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eustat-eko datuen arabera, 1999an 389 ustiaketa zeuden Irungo udalerrian zentsatuta; horietatik 184 ganadurekin eta 184 ganadurik gabe.</li> <li>• 2011ko basozaintzako datuen arabera, Irunen nagusi diren erabilerak hauek dira: landatutako basoa (% 26,15), basoa (% 23,16) eta belardiak (% 19,36).</li> <li>• Basozaintzako erabilerari dagokionez, koniferoek 661 ha. okupatzen dute eta hostozabalek 1.432 hektarea okupatzen dute.</li> <li>• <b>Baso-sistemen kontserbazio egoerak egokia dirudi, baso autoktonoek okupatutako azalera gero eta handiagoa delarik eta heldutasun maila handiagoarekin.</b></li> <li>• <b>Nekazaritzako landazabalak kontserbazio egoera desegokia ageri du</b>, alde batetik hazkunde urbanoak eraginda eta bestetik nekazaritza jarduera abandonatzeagatik.</li> <li>• Jarduera ez ekonomikoek ingurune naturalean daukaten eraginari dagokionez, <b>erabileraren publikoko jarduerak nabarmentzen dira Aiako Harria Parke Naturalean</b>, izan ere <b>hazkunde</b> bat ageri dute bai jarduera antolatuen kopuruan eta bai erabiltzaile eta parte-hartzaileetan.</li> <li>• N-121-A errepidearen trazatu berria egiteak, Gaintzurizketa eta Katea arteko N-1 errepidea zabaltzeak edo jada dauden azpiegiturek <b>ingurune naturalean alterazioak eta inpaktuak</b> eragiten dituzte.</li> <li>• Flora eta faunako <b>espezie exotiko inbaditzaileen</b> eraginari dagokionez, hauen presentzia oso garrantzitsua da (Bidasoako bokalearen zonaldean soilik jatorri exotikoko 22 espezieren presentzia detektatu da).</li> <li>• <b>Aiako Harria:</b> Parke Naturala da eta Kontserbatzeko Zonalde Berezia (ES2120016). Bere mugak ia bat datoz. Eremuak ia 7.000 ha-ko azalera du eta horietatik 1.250 ha Irunen daude.</li> <li>• <b>Txingudi-Bidasoa:</b> Txingudi-Bidasoa eremua babestuta dago Txingudi-Bidasoa Eremuko Baliabide Naturalen Babes eta Antolakuntzarako Plan Bereziaren bitartez (KBE ES2120018), Txingudiko Hegaztien Babeserako Zonalde Berezi bezala (HBBE ES0000243) eta, gainera, RAMSAR hezegunea da. Lau figura hauen mugak ez datoz bat. Espazio honek 100 hektarea baino gehiago du.</li> <li>• Irungo udalerriko Tokiko Intereseko Zuhaitzen Katalogoaren arabera, kategoria horretako 17 zuhaitz daude.</li> </ul>	<p>arte eginiko lanari jarraipena emanez, etab.)</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Animalia eta landare espezie interesgarriak edo mehatxatuak kontserbatzera zuzendutako jarduerak egitea.</li> <li>• Habitatak hobetzea eta degradatutako espazioak berreskuratzea bultzatu: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Udalerriko basoetan ustiaketa agresiboaren metodoak desagertu daitezkeen bultzatu (edo, gutxienez, metodo arduratsuagoak eta biodibertsitatea babesteko egokiagoak erabiltzera aldatu).</li> <li>- Espezie exotiko inbaditzaileak kontrolatu eta ezabatzeak neurriak gauzatzea.</li> <li>- Nekazaritzako landazabalen kontserbazio egoera hobetzera bideratutako programa edo ekimen zehatzak garatzea.</li> <li>- Mendiko larreen kudeaketa aktiboa bultzatzeko beharrezko neurriak abian jartzea.</li> </ul> </li> <li>• Urbanistikoki antolatzea eta lurzoru ez urbanizagarrietan erabileren eta jardueren ezarpena kontrolatzea.</li> <li>• Olaberria eta Meaka auzoetako plan bereziak onetsi daitezkeen bultzatzea.</li> <li>• Nekazaritza eta ingurumen alorreko praktikak bultzatzea kudeaketa plan publiko eta pribatuen bitartez.</li> <li>• Udalerriko balio natural eta paisajistikoak ezagutzera ematea, ingurumen alorreko heziketa jardueren bitartez.</li> <li>• Udalerriko ingurune natural eta paisaiari buruzko ikerketa lanak bultzatzea eta horren emaitzak ezagutzera ematea.</li> </ul>
--	--	--	---

		<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Irungo Udalak ikerketa zehatzak eginak ditu Irungo udalerriko ingurune fisikoari buruz eta ingurune naturalari buruz</b>, Udalak aztertu, arautu eta antolatu dezan.</li> <li>• Hala ere, Hazkuntza Urbanoari buruzko jarduerak ingurune naturalean eta nekazaritzan duten eraginen eta arriskuen atalean aipatzen den bezala, <b>bai Donostialdea-Bidasoa Lurraldearen Zatiko Planaren eta bai Euskadiko Trenbide Sareko Lurraldearen Arloko Planean proiektatzen diren jarduerak mehatxuak dira Irungo udalerriko balio natural eta paisajistikoentzat.</b></li> <li>• Udalak, <b>herritarrei zuzendutako biodibertsitate alorrean sentsibilizatzeko jarduerak</b> sustatzen ditu (Lapuriturri informazio puntua, Eskolako Agenda 21, eta abar).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erabilera sozial garrantzitsua duten espazio naturalak antolatu eta kontrolatzea.</li> <li>• Nekazaritzako jarduera ekonomikoen eta espazioen erabilera eta balio sozialaren arteko loturak indartzea.</li> </ul>
--	--	---	--



## LURRALDE IKUSPEGIAK. EBALUAZIO OROKORRA ETA JARDUTEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK

AZPI-EREMUAK	BALORAZIOA	DIAGNOSTIKOAREN OINARRIZKO ALDERDIAK	JARDUTEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK	
<b>MUGIKORTASUNA</b>	Eguneroko mugikortasunean dauden eskarien ezaugarriak		<ul style="list-style-type: none"> <li>Hiriko Mugikortasun Iraunkorrari buruzko Planaren (HMIP) arabera, <b>eguneroko joan-etorrien % 54,7a udalerrriaren barnean</b> egiten da. Eguneroko joan-etorriak egiteko herritarren arrazoi nagusia lana da, % 34,4 alegia. <b>Udalerrri barneko joan-etorri gehienak oinez egiten dira</b>, % 63, eta batez ere aisialdiarekin zerikusia duten arrazoiekin. <b>Udalerritik kanpoko joan-etorriei dagokienez, horietako gehienak ibilgailu pribatuan egiten dira</b> (zehazki % 69).</li> </ul>	<p><b>Udalaren eskumena:</b></p> <p>GARRAIO PUBLIKOA SUSTATZEA</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Garraio publikoa sustatzeko sentsibilizazio kanpainak egitea.</li> <li>Garraio publikoaren erabilera intermodala sustatzea.</li> <li>Orain arte arrakastaz eginiko ekimenak jarraitu eta hobetzea (eskolako bidea, Mugikortasun Jasangarriaren Astea, ...)</li> <li>Hirigunea eta auzo sakabanatuen arteko konektagarritasuna hobetzea.</li> <li>Garraio bide desberdinen hedapena bultzatzea, ordutegiak eta maiztasunak, erabiltzaile kopurua handitzeko.</li> </ul> <p>OINEZKOEN ETA TXIRRINGEN JOAN-ETORRIA ERRAZTUKO DUTEN ESPAZIOAK GARATU ETA HOBETZEA.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Hiri barneko bideetan 30eko zonaldeak zabaltzen jarraitzea.</li> <li>Bidegorrien sarea zabaltzea, udalerriko auzo guztietan txirringen mugikortasuna ezarri eta erraztu dezaten.</li> <li>Mugikortasuna edo ikusmena murriztua duten oinezko, txirringulak eta pertsonentzat</li> </ul>
	Mugikortasuna kudeatu eta planifikatu		<ul style="list-style-type: none"> <li><b>HMIPak duen helburu nagusia da joan-etorriak egiteko modu jasangarriak ezartzea, garraio bide efizienteagoak erabiltzea eta herritarrengan eta ingurumenean duten inpaktua murriztea.</b> Plan horren aurreikuspena da hiru fasetan gauzatzea plana indarrean egongo den 8 urteko epean (2011-2020).</li> </ul>	
	Lurralde mailako konektagarritasuna eta sarbidea		<ul style="list-style-type: none"> <li>Irun, <b>Europa barneko komunikabideen linea handien pasabidea da, garraiatzeko modu guztietan lotura-guneak ditu</b> eta horien bitartez bai aipatutako udalerriekin eta bai Europako hiri desberdinekin komunikatzen dute. Hiria modu onargarrian dago komunikatuta lurraldeko udalerriekin.</li> </ul>	
	Garraio publikoa.		<ul style="list-style-type: none"> <li>Udalerrriak <b>4 garraio bide publiko desberdin ditu</b>, zehazki hauen inguruan dabilzanak: autobusa (herri barneko autobus zerbitzua eta herri arteko autobus zerbitzua) eta trena (Euskotren eta RENFE). Irunen garraio bide publiko desberdin hauek egotean, arrazoi desberdinengatik (lana, ikasketak, erosketak, etab.) egunero egin behar diren joan-etorriak modu jasangarrian bultzatzeko aukera handia ematen dute.</li> </ul>	
	Oinezkoentzako eta txirringentzako sareen ezaugarriak			
	Bide-sarea		<ul style="list-style-type: none"> <li>Kontuan hartuta barneko joan-etorri gehienak oinez (% 63) egiten direla, <b>garrantzitsua da espazio publikoetan eta oinezkoen azpiegituretan arreta jartzea</b>, zeinak modu egokian aintzat hartuak diren 68/2000 Dekretua argitaratu zenetik, zeinaren bitartez onartzen diren inguru urbano, espazio publiko eta eraikinetako irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak. Hala ere, <b>hainbat eraikin publikotarako eta trenbideko geltoki batzuetarako irisgarritasun arazoak egoten jarraitzen dute.</b></li> </ul>	
	Aparkalekua.			
	Motorizazioa eta ibilgailuak		<ul style="list-style-type: none"> <li>Irungo <b>Bidegorrien sareak</b> 18,6 kilometroko txirringa-bidea du, 30 zonaldea duen 3,2 kilometroz gain (Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren berrikusketak jasotzen du bidegorrien sarea 45 km-tara zabaltzeko proposamena). Ikerfel taldeak eginiko 750 elkarrizketatik, Herritarren Kalitate Planaren baitan eginak, <b>% 14ak esan zuen txirringa maiz erabiltzen duela, baina %91k aisialdiko arrazoiekin erabiltzen</b></li> </ul>	
	Istripuak			









	Merkantziak		<p><b>du</b> eta ez lana, ikasketak edo erosketak egiteko eguneroko joan-etorrietarako. Garrantzitsua da adieraztea elkarrizketatuen %87ak erantzun zuela "ezinbestekoa, beharrezkoa edo komenigarri" zela udalerrian txirringa-bideak edukitzea (%66ak baieztatu zuen azpiegitura hori erabiliko zukeela txirringa-bidearen sare segurua edukiko bagenu).</p>	<p>oztopo arkitektonikoak egokitzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ondoko udalerriekin txirringa bidezko lotura bultzatzea.</li> </ul>
	Bide-heziketa.		<p>•Era berean, hirian bada txirringa bidearen zati bat Gipuzkoako Txirringa Bideen Oinarrizko Foru Sarearen barruan dagoena ("<b>Irun-Endarlatsa</b>" <b>zattia</b>). Honek, batzaz beste, <b>egunero 260 erabiltzaile</b> du eta aisialdiko erabilera da nagusi (GFAREN 2011ko datuak). Aldundiak proiektuan dituen zatiei dagokienez, "Donostia-Irun" ibilbidea hiritik igaroko da eta Gipuzkoako Txirringa bideen Lurraldearen Arloko Planean sartuta dago (Planak 8 urteko indarraldia du, behin betiko onesten denetik aurrera, 2013ko ekainean).</p> <p>•<b>Hiriak baditu udalerriz kanpoko bi errepide handi, udalerrian eragin handia dutenak.</b> A-8 (batez ere nazioarte mailako erabilera duen autopista) eta N-1 errepidea, bai nazioarteko trafikoa eta bai udalerrien arteko loturarako erabiltzen dena, baita Nafarroako Foru Komunitatearekin lotzeko ere. <b>HAPN planaren berrikuspenak bide-sarearen eredia hobetzea planteatzen du</b>, ondorengo proposamenak eginez: A) A-8 Autopista eta Irungo erdigunearen arteko lotura berri bat sartzea; B) N-1 errepidea hiri barneko bide bihurtzea; C) Hego Saihesbidea sortzea trafikoa udalerriarren hegoalde bideratzeko eta N-1 errepidea arintzeko.</p> <p>•<b>Hirian mugikortasunarekin zerikusia duen arazo nagusia aparkalekuarena da.</b> Arazorik garrantzitsuenak hauek dira: A) karga/deskargarako aparkalekuak ibilgailu partikularren aparkalekuekin batera egotea; B) OTA/TAO duten zonaldeekin muga egiten duten egoiliar ez diren ibilgailuen errotazioarekin saturatzea; C) gaueko aisialdiko zonalde jakin batzuetan, toki desegokietan aparkatutako ibilgailuen pilaketa.</p> <p>•<b>Ibilgailuen kopuruak gora egin du etengabe duela hamarkada batzuetatik, eta are eta handiagoa izan da gorakada hori azkeneko hamarkadan.</b> Irun pasatu da 2000 urtean 30.946 ibilgailu edukizetik, 2010 urtean 37.533 edukitzera (honek esan nahi du <b>%21,35eko igoera</b> izan duela). Motordun ibilgailuen igoera honek bete-betean jotzen du mugikortasun iraunkorrari lotutako ohitura onen aurka.</p> <p>•<b>2012an erregistratutako istripuen kopurua 1000 biztanleko 8,78koa izan zen, 2003koarekin alderatuta %28,21 murriztuz</b> (hauek Gipuzkoako antzeko datuak dira). <b>Irunen gertatutako harrapatzeak asko jaitsi dira</b> eta 10000 biztanleko 9,41 izatetik 2003an, 5,24ra jaitsi dira 2012an (urte horretan bertan, Gipuzkoako batzaz besteko datua 5,06ko harrapatzea izan zen 10000 biztanleko).</p> <p>•Irun puntu garrantzitsua da pasabide bezala, bai nazioarte mailan N-1 eta A-8 bide sareen bitartez eta bai nazional eta nazioarte mailako logistika eta merkantzien garraio</p>	<p>HIRI BARNEKO ETA HIRI ARTEKO BIDEEN EGOERA HOBETZEA</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>•Arrisku puntuetan sor daitezkeen gorabeherak identifikatu eta murrizteko behar diren neurriak hartzea.</li> <li>•Udalerriko zonalde sakabanatuetara joateko bide sarea hobetzea.</li> </ul> <p>GARRAIO PUBLIKOA ETA MOTORRIK GABEKO GARRAIOBIDEAK LEHENESTEA.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>•Txirringentzako aparkalekuen sarea zabaltzeko aukera aztertzea.</li> <li>•Ibilgailu pribatuaren aurrean txirringa eta garraio publikoa lehenestea ekar dezaketen neurriak areagotzea.</li> <li>•Tokiko administrazioaren enplegatuen eta horri lotutako eskualdeko erakundeetako enplegatuen artean garraio publikoa erabiltzea bultzatu eta gauzatzea.</li> </ul> <p>BIDE HEZIKETA ETA GARRAIO MODU IRAUNKORRAK SUSTATZEA</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>•"Escolako bidea" ekimenarekin jarraitu eta bideragarri gerta dakiekeen ikastetxe guztiei zabaltzea</li> <li>•Ikastetxeetan eta pertsona kopuru handia elkartzen den tokietan oinezko eta txirringa sarbideak hobetu</li> <li>•Bide heziketa programarekin jarraitu</li> </ul> <p>MUGIKORTASUN IRAUNKORRARI LOTUTAKO PARTE-HARTZE ESPAZIOAK SORTU ETA MANTENDU</p>

			<p>alorrean, ZAISA mugaz gaindiko plataformaren bitartez (plataformak hiru eremu ditu, 400.000 m2 azalera erabilgarria du eta zerbitzu zabala eskaintzen du era guztietako merkantzien harrera, banaketa eta biltegiatze sektorean espezializatutako enpresa desberdinentzat).</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikerfel taldeak Irungo Udalarentzat Herritarren Kalitate Planaren baitan 2009an eginiko inkesten arabera, <b>herritarrentzat etorkizunari begira lehentasuna duten arlo nagusietako hiru, mugikortasunarekin, aparkalekuarekin eta trafiko eta garraio publikoarekin zuzenean lotutakoak dira</b>. Zehazki, inkesta egindako pertsonen %45ak erantzun zuen aparkalekua dela hiriak daukan arazo nagusia. Jarraian, trafikoa egongo litzateke, %39arekin.</li> <li>• Udaltzaingoak, hiriko ikastetxeekin elkarlanean, "<b>Mugikortasun segururako heziketa</b>" formazio jarduera egiten du. Horretarako, besteak beste, Ibarlan kokatzen den bide heziketarako pista dauka.</li> <li>• Udalak 2009an "<b>Eskolako bidea</b>" ekimena bultzatu zuen eta gaur egun udalerriko 6 ikastetxek parte hartzen dute ekimen horretan. Era berean, mugikortasun iraunkorra, Eskolako Agenda 21 programaren barnean ere aztertu izan da.</li> <li>• 2012ko maiatzean "Irun Gizabidearen alde" ekimenaren laugarren kanpaina egin zen, kasu honetan gai honekin: "Mugikortasuna hirian: denok gara erantzule" (3 astez, herritarrak gaiaren inguruan sentsibilizatzen saiatu ziren). Herritarrek beren iritzia, gorabeherak eta iradokizunak emateko aukera izan zuten bide segurtasunean gizabidezko balioak sustatzen zituen prebentzio-kanpainen zehar.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Mugikortasun Mahaiaren jarraipena bultzatu</li> <li>• Irunen mugikortasuna hobetzeko herritarren parte hartzearekin jarraitzeko baliabide egokiak ezartzea</li> <li>• HMIP planeko jarduerak poliki-poliki garatzea</li> </ul> <p><b>Udalaz gaineko eskumena:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Beharrezkoa den neurrian, Hondarribia eta Irun arteko autobuseko garraio publikoko tarifak, ordutegiak eta loturak egokitzea eta hobetzea eskatu.</li> <li>• Beharrezkoa den neurrian, Donostia eta Irun arteko autobuseko garraio publikoko tarifak, ordutegiak eta loturak egokitzea eta hobetzea eskatu.</li> </ul>
--	--	--	---	--

The background is a solid light green color with a pattern of faint, darker green floral and leaf motifs scattered across it. The motifs include various types of flowers and leaves, some with detailed centers and others as simple silhouettes.









## **2. BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA**

## BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMENAREN KALITATEA. EBALUAZIO OROKORRA ETA JARDUTEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK

	AZPI-EREMUAK	BALORAZIOA	DIAGNOSTIKOAREN OINARRIZKO ALDERDIAK	JARDUTEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK
<b>URA</b>	Ur hornidura		<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Elordiko (Irun) Edateko Ura Tratatze Plantak (EUTP)</b> eskualdeko urtegietako ura jasotzen du potabilizatze, eta depositu desberdinetara banatzen du, hortik gero herriari hornitzeko.</li> <li>• <b>Irunen kontsumitzen den ura gehienbat Endara errekaen arrotik dator, non kokatzen diren Domiko eta Endara (edo San Anton) urtegiak, eta azken hau da hornitzaile nagusia, 5 milioi m<sup>3</sup>-ko edukia du eta. Urtegi hau urtean ia bi aldiz bete behar izaten da eskualdean uraren hornidura bermatzeko.</b></li> <li>• <b>Lehorte garaietan, Jaizkibel Mendi magaleko lur azpitik ura hartzen da, zehazki Artzu, Molino, Justiz eta Goikoerrotako iturrietatik (akuifero hauek eskualdean behar den uraren % 27a hornitzen dute). Gainera, Jaizkibelgo lur azpiko urak ustiatzeko puntu berriak egokitu dira, eta beharrezkoa balitz, hornidurarako beharrezkoa den uraren % 60 arte emateko ahalmena izatea lortzen da.</b></li> <li>• <b>Ur edangarren tratamendu prozesua egin eta gero, Elordiko EUTPtik datorren ura biltegitratzen da kontsumo-puntu guztietara banatzeko. EUTP deposituaz gain, 14.000 m<sup>3</sup> ahalmena duena, hornidurarako 8 depositu ditugu, eta denen artean 50 milioi litro ur daukate. Irunen depositu hauetako 5 daude.</b> Egun, ia herri osoak jasotzen du Elordiko EUTPan tratamendua jasotako ura.</li> <li>• <b>Eskualdeko sarean izaten ziren galerak poliki-poliki gutxitzen joan dira</b> (kontuan hartzen dira banaketa sareko galerak, erregistratu gabeko ura, kontagailuen azpi-kontaketa, kontagailuen irakurketen deskorrelazioa, hoditeriako matxurak, ...). Esku artean ditugun datuen arabera (2012), <b>hornidura sareko galerak, Irunen, %18,5ekoak dira.</b></li> <li>• Egun, Txingudiko Zerbitzuak <b>aldian behin eta sistematikoki Bidasoaldeko eskualdeko ur kontsumoak kontrolatzen ditu.</b> Irunen, sareen sektorizazioa eta kontagailuen irakurketa-erradioaren ezarpena amaitu da, beraz, kontsumoaren kontrol osoa dago.</li> <li>• 2010etik aurrera, <b>ur eskarian murrizketarako joera</b> bat ikus daiteke, aurreko urteekin alderatuta.</li> <li>• <b>Irunen, etxeko ur kontsumoa biztanle eta eguneko (117 litro/biztanle/eguneko -2011ko datua-) pixkanaka murrizten joan da 2004tik aurrera,</b> udalerriko biztanle kopurua handitu den bitartean (azkeneko 3 urteetan izan ezik, non biztanle eta eguneko etxeko ur kontsumoa egonkor mantendu den), beraz, joera guk nahi bezalakoa da.</li> </ul>	<p><b>Udalaren eskumena:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Txingudiko Zerbitzuei igorri detektatzen diren beharrak ur edangarriaren banaketa hobetzeko, hala nola saneamendu sarea hobetzeko.</li> <li>• Industri sektoreko, zerbitzu sektoreko eta lehen sektoreko kontsumoak ezagutu eta kontrolatzeko beharrek kudeaketak egin.</li> </ul> <p><b>Udalaz gainera eskumena:</b></p> <p style="text-align: center;">TXINGUDIKO                      ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ur hornidura bermatu</li> <li>• Hornidura sareko uraren kalitatea bermatu, iraunkortasun irizpideekin.</li> <li>• Hornidura sareko galeren kontrola hobetu.</li> <li>• Saneamenduan eta hondakin-uren arazketan hobetzen jarraitu.</li> <li>• Uraren zikloari buruzko sentsibilizazio eta komunikazio jarduerekin jarraitu, baita baliabide honen erabilera</li> </ul>
	Ur edangarria banatzeko sarea			
	Eskaria eta kontsumoa			
	Saneamendua eta arazketa			
	Uraren zikloaren arautegia eta kudeaketa			
	Sentsibilizazioa			
	Baliabide hidrikoen kalitatea eta baliagarritasuna			
	Uraren kalitatea			

		<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Gainerako sektoreetako kontsumo maila eta bilakaera zein den ez da ezagutzen,</b> adibidez, industri sektorean, zerbitzu sektorean, nekazaritza sektorean edo udalean.</li> <li>• <b>Iruten nekazaritzan egiten den ur kontsumoa ez da inongo arazo. Alderantziz, benetako arazoa hornidura sareetako isurietan dago (2011n kontsumitutako ur bolumen osoaren 33,7a izan zen), eta alderdi horretan jartzen dute ahalegin gehien Txingudiko Zerbitzuek. Horri esker, galerak % 12,3 murriztu dira.</b></li> <li>• <b>Eskualdeko hondakin urak</b> kolektore-sarean jasotzen dira eta hodi-biltzaile orokorraren eta ponpatze-estazioen bitartez <b>Atalerrekako Hondakin Uren Araztegia (HUA) tratamendua jasotzen dute</b> itsasora isuri baino lehen.</li> <li>• 2003tik, <b>udalerriko erreka garrantzitsuenek</b> (Ibarrola, Olaberria eta Ugalde) <b>ez dituzte hondakin-urak jasotzen.</b></li> <li>• <b>2012 urtean, HUAn sortutako lohi gehienak nekazaritzan erabiltzeko bideratu ziren,</b> eta zati txiki bat zementu-fabrikari erabiltzen da bigarren mailako erregai bezala.</li> <li>• <b>Ur araztuak berrerabiltzeko sistemarik ez dago.</b></li> <li>• Mankomunitateak arautegi propioa dauka uraren zikloarekin zerikusia duten alderdi desberdinak arautzeko (uraren kudeaketa integrala arautzen duen ordenantza, Txingudi Zerbitzuen saneamendu-sarera isurketak egiteko ordenantza, etab.)</li> <li>• Mankomunitateak eta Udalak <b>uraren gaineko ingurumen-heziketarako jarduerak</b> egiten dituzte herriko sektore desberdinei zuzenduta (bisita gidatuak, Eskolako Agenda 21, Uraren Nazioarteko Eguna ospatzea, etab.).</li> <li>• Kontsumoko uren kalitate-kontrola Txingudiko Zerbitzuen laborategietan egiten da.</li> <li>• Hornidura sarearen bitartez hornitutako urak kalitate egokia erakusten du, izan ere <b>aztertutako laginen % 100ak Kontsumorako Gai kalifikazioa jaso dute,</b> indarrean dagoen arautegian ezarritako irizpideak kontuan hartuz.</li> <li>• Ibaietako uraren kalitateari dagokionez, <b>Bidasoa ibaiarena</b> hain zuzen, eskualdetik igarotzen den tokian, <b>bere egoera ekologikoa ona da.</b> Hala ere, Urdanibian kokatzen den estazioak <b>Jaizubia errekarari buruzko datuak jasotzen ditu eta bere egoera ekologikoa txarra da. Bidasoako estuarioari dagokionez, kutsadura murriztu egin da,</b> kutsadura arinaren mailara pasatuz.</li> </ul>	<p>arduratsuari buruz ere.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• BJA050 eta EB15 neurketa estazioen inguruan ur kalitatea hobetzeko kudeaketa egokiak egitea.</li> </ul>
--	--	--	---

## HONDAKINAK. EBALUAZIO OROKORRA ETA JARDUTEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK











HONDAKINAK	AZPI-EREMUA	BALORAZIOA	DIAGNOSTIKOAREN OINARRIZKO ALDERDIAK	JARDUTEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK
	Hiri-hondakinen sorrera		<ul style="list-style-type: none"> <li>2007an, hondakinen sorrerak biztanleko mailarik altuena harrapatu eta gero (1,87 kg/biztanle/urteko), <b>ratio honen balioa murrizten joan da 1,61, kg/biz/eguneko (2012) balioetan kokatu arte</b>. Hala ere, datu hau hobetu daiteke (Udalsarea 21eko udalerrien bataz besteko balioa gainditzen du, 1,2 kg/biz/urteko baita) eta <b>prebentzioan sakondu egin beharko litzateke</b>.</li> </ul>	<p><b>Udalaren eskumena:</b></p> <p>Irungo udalerrian, hondakinen kudeaketa eta bide garbiketarako eskumena Txingudiko Zerbitzuen Mankomunitatearena da.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Hondakinen prebentzioa eta murrizketa bultzatzeko sentsibilizazio eta komunikazio jarduerak sustatu.</li> <li>Gaika jasotzen diren hondakinen kopurua igotzeko sentsibilizazio eta komunikazio jarduerekin jarraitu.</li> <li>Birziklatze tasak handitu eta Lurralde Historikorako finkatutako helburuak lortzea ahalbidetuko duten ekimenak abian jarri.</li> <li>Hondakin urbanoak eta hondakin urbanoekin lotu daitezkeen haien bilketa optimizatzeko sektore guztietan beharreko hobekuntzak egitea.</li> <li>Herritarrei eta enpresei komunikazio jardueretan sakontzea garbiguneen ezaugarriei dagokienez, bere erabilera areagotu</li> </ul>
	Gaikako bilketa		<ul style="list-style-type: none"> <li>Gaika jasotzen diren hondakin urbanoen portzentajeak, ondoren birziklatzeko, nahi bezalako joerarekin jarraitzen du (gero eta gehiago) eta 2011n hondakin urbanoen gaikako bilketa % 37,2ko tasa izatera iritsi zen. 2012an hiri hondakinen gaikako bilketa % 0,4 jaitsi zen aurreko urtearekin alderatuz, % 36,81ean kokatuz. Emaitza hau, 15.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietako gaikako bilketaren tasatik gora dago, Tokiko Agenda 21eko prozesuen Jarduera Planen Ebaluaketa eta Jarraipenerako V. Programan parte hartu zutenetatik (% 30).</li> </ul>	
	Hiri hondakinen tratamendua		<ul style="list-style-type: none"> <li>Egun, papera da gehien birziklatzen den hondakina.</li> <li>2009tik aurrera modu selektiboan jasotzen hasi ziren etxeetako olioia eta 2010etik aurrera gai organikoa ere bai (kozinatu gabea).</li> </ul>	
	Hiri hondakinei buruzko ordenantzak eta fiskalitatea		<ul style="list-style-type: none"> <li><b>Baloratu daitezkeen hondakinen tasa</b> (etxeetan sortutako hondakinak eta ostalaritza eta elikagaien sektorean sortzen diren haiek, gaur egun gehienak zabortegira eramaten direnak) <b>murriztu egin dira azkeneko urteetan</b>, bai sortutako hondakinen tasa guztira murriztu delako eta bai hondakin birziklagarrien igoera eman delako.</li> </ul>	
	Heziketa eta sentsibilizazioa		<ul style="list-style-type: none"> <li>Irungo zonalde urbanoko hondakinen gaikako bilketa eta orokorra, isleta batzuen bitartez egiten da, ondorengo <b>edukiontziek</b> osatuta: <b>urdina</b> (papera eta kartoia), <b>horia</b> (ontzi metalikoak, plastikozko ontziak eta brick motako ontziak), <b>iglu berde argia</b> (botilak, beirazko ontzi eta potoak), <b>marroia</b> (kozinatu gabeko gai organikoa) eta <b>berde iluna</b> (gainontzeko zaborra). Gainera, isleta hauetako batzuk <b>edukiontzi zuriez</b> osatzen dira, ehuna biltzeko, <b>edukiontzi grisa</b>, etxeo olioia jasotzeko eta/edo <b>kolore horia duen zazpigarren edukiontzi txikia</b>, pilak biltzeko.</li> </ul>	
	Industria-hondakinak		<ul style="list-style-type: none"> <li>2010 urtetik aurrera materia organikoaren gaikako bilketari hasiera eman zitzaion eta ordutik konposta egitera bideratzen da edukiontzi marroian jasotzen den materia organikoa guztia eta kimaketa eta lorazaintzako hondakinak.</li> </ul>	
	Eraikuntzako hondakinak		<ul style="list-style-type: none"> <li>Irunen, <b>uren arazketatik sortutako 1.098 tona lohi balorizatu dira</b> 2012 urtean eta horrek esan nahi du aurreko urtearekin alderatuta % 4,1 igo dela (lohi hauek materia aprobetxagarriak dira zementu-fabrikentzat erregai gisa eta nekazaritzako lurretan botatzeko ere erabiltzen dira).</li> </ul>	
	Bide-garbiketa		<ul style="list-style-type: none"> <li>Mankomunitateak 2012an kudeatutako hondakinen guztirakoari dagokionez, botatakoaren gaineko berreskuratze portzentajea % 36,81 izan zen.</li> </ul>	



		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hiri hondakinen alorrean biztanleen eta edukiontzi kopuruaren arteko erlazioa edukiontzi bakoitzeko 133,7 biztanle dira (udalerriko biztanle kopurua zatitzen da hiri hondakinak biltzeko edukiontzien kopuruaren artean).</li> <li>• Bidasoako bi herriek (Irun eta Hondarribia) badituzte jada <b>Puntu Garbiak edo Garbiguneak</b>: Arasoko garbigunea (Txingudiko parke komertzialetik gertu), Akartegiko garbigunea Hondarribian (Akartegi auzoko Labreder errotondaren ondoan).</li> <li>• Hilero Garbigunera jo dute, guztira, <b>1.097,75 gremiok eta 462,67 erabiltzaile partikularrek</b>, bataz beste. 2012ko azaroaren 22an Akartegi auzoan (Hondarribia) kokatutako instalazio berria funtzionatzen hasi bazen ere, eta Akartegi irekitzeak Arasokoaren erabilera-adierazleak jaistearen eragin badu ere, eskualdeko garbiguneen erabilera igoera globala ekarri du. <b>Gainera, Arasoko garbigunerako sarreraren bilakaera azkeneko urteetan igo egin da.</b></li> <li>• <b>Puntualki isuri inkontrolatuak gertatzen dira, batez ere nekazaritza zonaldeetan</b> (2012an 65 abisu jaso ziren Irungo udalerrian izandako isuri inkontrolatuei buruz).</li> <li>• Irunek (Hondarribiak bezala) <b>hondakin urbanoekin zerikusia duten 2 ordenantza dauzka</b>, Txingudiko Zerbitzuen Mankomunitateak onartuta.</li> <li>• 1999tik aurrera Txingudiko Zerbitzuek, urtero, sentsibilizazio kanpainak egiten ditu herritarrei zuzenduta, hondakinak murriztu, berrerabili eta birziklatzeari buruz.</li> <li>• Gaikako bilketa eraginkorragoa izan dadin eta modu horretan birziklatze tasak areagotu, <b>industri zonaldeetan frakzio batzuen "atez ateko" bilketa egiten da</b>. Zerbitzu honek papera eta kartoia, egurra, geldoak, tamaina handikoak eta zonalde industrialetan sortutako zaborra orokorki jasotzen du. Poligono industrialetako atez ateko zerbitzua <b>870 enpresei eskaintzen zaie</b>.</li> <li>• <b>Industri jatorriko hondakinen</b> 9.048,4 tona kudeatu dira guztira 2012 urtean zehar, horrek esan nahi du aurreko urtearekin alderatuta <b>% 2,62an atzera egin dela</b>.</li> <li>• <b>Eraikuntza eta eraiste lanetako hondakinen tasa azkeneko urteetan etengabe hazten joan dela ikusten da</b>. 2012an Eraikuntza eta Eraiste Laneko Hondakinen bolumena guztira zertxobait jaitsi egin zen (% 1) aurreko urtearekin alderatuz.</li> <li>• Garbiketa zerbitzuak optimizatzeko, <b>Txingudiko Zerbitzuen Mankomunitateak bide garbiketarako ibilbideak diseinatzen ditu adierazle batzuen arabera</b>. Benetako beharretara egokituko den garbiketa-maiztasunak ezartzeko helburuarekin, sortutako zikinkeria-mailaren arabera antolatzen da hori.</li> </ul>	<p>dadin eta, beraz, gaikako bilketa tasak ere bai.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Hiri barnean mikro-garbiguneak sortzeko aukera aztertu, hondakin arriskutsuen bilketa erraztearren.</li> <li>• Bide garbiketan etengabeko hobekuntzan jarraitu.</li> <li>• Mankomunitatearen bitartez kudeatutako hondakin arriskutsuen ezabaketa murriztu.</li> <li>• Isuri inkontrolatuen kontrol eraginkorra bultzatu, batez ere nekazaritza zonaldeetakoak.</li> <li>• Udalerrika bereizitako datuak lortzea erraztu.</li> </ul> <p><b>Udalaz gaineko eskumena:</b></p> <p>GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketarako Plan Integrala gauzatzea (2002-2016)</li> </ul>
--	--	--	--









**BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMENAREN KALITATEA. EBALUAZIO OROKORRA ETA JARDUTEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK**

ENERGIA	AZPI-EREMUAK	BALORAZIOA	DIAGNOSTIKOAREN OINARRIZKO ALDERDIAK	JARDUTEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK
